## KANPOKO ARGIZTAPENA: hornidura eta instalazioa



### Oinarrizko maila

### *Hornitzaileentzako checklist-a: ingurumen-irizpideak*

**1. ERANSKINA: BETEKIZUNAK**

Markatu BAI zutabeko laukia, nahitaezko gutxieneko zehaztapen guztiak eta zehaztapen baloragarriak betetzen direla berresteko.

Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo haiek betetzen direla egiaztatzen duen abala ez aurkezteak automatikoki baztertuko du eskaintza esleipen-prozeduraren hurrengo faseetarako kontuan hartzeko aukera.

Zehaztapen baloragarrien kasuan, zehaztapena betetzen dela agerian jartzen duen abala aurkezten ez bada, hari lotuta dagoen puntuazioa baliogabetuko da, eta horrek eskaintzarik onuragarriena identifikatzeko balio du.

| Enpresaren izena: | | | |
|---|---|---|---|
| **NAHITAEZKO IRIZPIDEAK** | **BAI** | **ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA** | |
| Argi-jatorriko kutsadura ekologikoa | | | |
| Argi-iturrien kolore-tenperatura, gehienez 3.000 K-koa (3.000 K-tik beherakoa entitate kontratatzaileak zehaztutako eremu sentikorretan) | ☐ | 2 | |
| Instalatutako goiko fluxu hemisferikoa % 1etik beherakoa | ☐ | 8 | |
| Argiztapen-ekipamenduen ezaugarriak | | | |
| Luminarien eraginkortasuna > 105 lm/W (2.700-3.000 K-ko kolore-tenperaturako argi-iturrien kasuan) | ☐ | 2 | |
| 25 ºC-tan 50.000 orduko bizitza nominala (L90B10) duen argi-iturria | ☐ | 3 | |
| Driver-aren akats-tasa: <% 0,2/1.000 ordu | ☐ | 2, 3 | |
| Luminariaren sarreraren aurkako babes-indizea (BI): IP66 gutxienez | ☐ | 2 | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Luminariaren inpaktu mekanikoen aurkako babes-maila: IK08 gutxienez | ☐ | 2 | |
| Zorutik 1,5 metrotik beherako altueraren kasuan, luminariaren inpaktu mekanikoen aurkako babes-maila IK09 izango da. | ☐ | 2 | |
| Luminarien potentzia-faktorea: ≥ 0,90 | ☐ | 2 | |
| Luminariaren osagaiak modularrak izango dira, ordeztu ahal izateko | ☐ | 9 | |
| Argi-iturria (lanpara edo LED modulua) eta elementu osagarriak erraz iristeko eta ordezteko modukoak izango dira | ☐ | 9 | |
| LED moduluen bermea: 5 urtekoa | ☐ | 10 | |
| Argiztapen-sistemaren osagaiak ENEC zigiluarekin edo baliokidearekin | ☐ | 5 | |
| Instalazioaren kontrola eta kontsumoen monitorizazioa | | | |
| Erregulazioko driver bidezko kontrola luminaria bakoitzean (gutxienez bi moteltze-maila eta ordutegiak). Kontsumoaren monitorizazioa taula bakoitzean. | ☐ | 4 | |
| Ekipamenduen muntaketa/instalazioa | | | |
| Hautatutako produktuen osagai diren bigarren mailako materialen bermea | ☐ | 1 | |
| Instalazioaren amaierako egiaztapenak (potentzia-dentsitatearen adierazlea, energiaren urteko kontsumoaren adierazlea…) | ☐ | 1 | |
| Argitasun-kontrolen funtzionamendu zuzenaren egiaztapena | ☐ | 1 | |

| IRIZPIDE BALORAGARRIAK | PUNTUAZIOA[1] | BAI | ABAL MOTA /MEMORIAKO ORRIALDEA |
|---|---|---|---|
| 1. AUKERA: prezioaren irizpideari gaineratuko zaizkion esleipen-irizpideak | | | |
| Bermealdi luzeagoa | | ☐ | 1 |
| 2. AUKERA: bizi-zikloaren kostua | | | |
| Bizi-zikloaren kostuaren kalkulua | | ☐ | 6 |

[1] Esleipen-irizpideetan ingurumen-alderdiei dagokienez zehaztutakoaren arabera.

| Argiztapen-ekipamenduen inguruko beste alderdi batzuk | | | |
|---|---|---|---|
| Eskainitako produktu ekodiseinatuen ehuneko handiagoa | | ☐ | 7 |
| Birziklatutako materialaren eduki handiagoa ekipamenduetan | | ☐ | 2,7, 10 |

**ARGIBIDEAK**

"**Abal mota/Memoriako orrialdea**" zutabean, zehaztapen eta irizpide baloragarri bakoitzaren betetzea ziurtatzen duten abalak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa txertatu dira.

Zenbakiak ondorengo dokumentuei dagozkie:

| | |
|---|---|
| 1. Enpresa lizitatzailearen adierazpena | 6. Enpresa lizitatzaileak egindako kalkuluak |
| 2. Fitxa teknikoa | 7. ISO 14006 arauaren eranskina, bizi-zikloaren analisiaren txostena, produktuaren ingurumen-adierazpena… |
| 3. Laborategiko saiakuntza | 8. Luminariaren saiakuntza fotometrikoa, igorritako guztizko argi-fluxua eta FHSINST |
| 4. Deskripzio-memoria | 9. Desmuntatzeko argibideak |
| 5. ENEC ziurtagiria | 10. Fabrikatzailearen adierazpena |